



## Legazpiko Ekobarometroa

**2004**



## Aurkibidea

<b>0. Alderdi metodologikoak</b>	<b>3</b>
0.1. FITXA TEKNIKOAK	3
0.2. LAGINAREN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	4
<b>1. Herritarren gogobetetze-maila tokiko komunitatearekiko</b>	<b>5</b>
1.1. UDALERRIKO HERRITARREN ASOZIAZIONISMO-MAILAK	5
1.2. UDALERRIAK BIZITOKI GISA ERAGITEN DIEN GOGOBEETZE-MAILA	5
1.3. UDALERRIAK LANTOKI GISA ERAGITEN DIEN GOGOBEETZE-MAILA	6
1.4. UDALERRIAK ESKAINTZEN DITUEN HAINBAT ALDERDIK ERAGITEN DIETEN GOGOBEETZE-MAILA ETA POZIK EZ EGOTEKO ARRAZOI NAGUSIAK	6
1.5. UDALERRIAN LANDU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO INGURUMEN-ALDERDIAK	7
1.6. UDALERRIAN LANDU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO ALDERDI SOZIALAK	8
1.7. UDALERRIAN LANDU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK	8
1.8. UDALERRIAK DITUEN GABEZIA OROKOR NAGUSIAK	9
<b>2. Eremu publiko irekiak eta zerbitzuak udalerrian</b>	<b>10</b>
2.1. UDALERRIKO EREMU PUBLIKO IREKIEN ETA ZERBITZUEN HURBILTASUNA (DENBORAREN ARABERA)	10
<b>3. Ingurumen-informazioa</b>	<b>11</b>
3.1. INGURUMEN-INFORMAZIO MAILARI BURUZKO GOGOETA	11
3.2. INGURUMEN-INFORMAZIOAREN EZAUGARRIAK	11
<b>4. Mugikortasuna eta garraioa</b>	<b>12</b>
4.1. MUGIKORTASUN-ADIERAZLEAK	12
4.2. IKASLEEK IBILGAILU PRIBATUA ZENBAT ETA ZERGATIK ERABILTZEN DUTEN	15
<b>5. Hondakinak eta kontsumoa</b>	<b>17</b>
5.1. BIRZIKLATZEKO HONDAKINEN BANAKETA-MAILA ETXEAN	17
5.2. HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO UDALERRIKO ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIO-MAILA	17
5.3. ETXEKO HONDAKINEN BANAKETAN ETA SAILKAPENEAN ERAGINA DUTEN ALDERDIAK	18
5.4. GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERA-MAILA ETA EZ ERABILTZEKO ARRAZOIAK	18
5.5. ETXEKO UR-KONTSUMOA TXIKITZEA ETA EZ TXIKITZEKO ARRAZOIAK	19
5.6. ETXEKO ELEKTRIZITATE-KONTSUMOA TXIKITZEA ETA EZ TXIKITZEKO ARRAZOIAK	19
5.7. ELIKAGAI EKOLOGIKOEN KONTSUMO-MAILA ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK	20
5.8. PRODUKTU EKOLOGIKOEN KONTSUMO-MAILA ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK	20
5.9. KONTSUMO TXIKIKO ETXETRESNA ELEKTRIKOEN ERABILERA-MAILA ETA EZ ERABILTZEKO ARRAZOIAK	21
5.10. BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUEN KONTSUMO-MAILA ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK	21
<b>6. Ingurumen-proposamenak eta -neurriak</b>	<b>22</b>
6.1. INGURUMENAREN EGOERAK HAINBAT EREMUTAN BERRIKI IZAN DUEN BILAKAERARI BURUZKO PERTZEPZIOA	22
6.2. INGURUMENA BABESTEKO JARDUEREN NAHIKOTASUN-MAILA UDALERRIAN	22
6.3. UDALERRIAN INGURUMENA POLUITZEN DUTEN ERAGILE NAGUSIAK	23
6.4. INGURUMENA BABESTEKO AURRERAPAUZO GEHIEN EMAN DITUZTEN UDALERRIKO SEKTORE INDUSTRIALAK	23
6.5. INGURUMEN-ARLOAN EAE-KO ENPRESEK DUTEN INPLIKAZIO-MAILARI BURUZKO PERTZEPZIOA	24
6.6. TOKIKO AGENDA 21 EZAGUNA IZATEA	24
6.7. TOKIKO AGENDA 21-I BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO INTERESA	25
6.8. HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROETAN ESKU HARTZEKO INTERESA	25
<b>7. Legazpiko ekobarometroaren ondorio nagusiak eta adierazleak</b>	<b>26</b>
7.1. 2004KO EKOBAROMETROAREN ONDORIO NAGUSIAK	26
7.2. 2004KO EKOBAROMETROAREN ADIERAZLEAK	27
<b>Eranskinak</b>	<b>28</b>
1. HERRITARREN GOGOBEETZE-MAILA TOKIKO KOMUNITATEAREKIKO, SEXUAREN, ADINAREN, AMAITUTAKO IKASKETEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA	28
2. EREMU PUBLIKO IREKIAK ETA ZERBITZUAK UDALERRIAN, SEXUAREN, ADINAREN, AMAITUTAKO IKASKETEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA	36
3. INGURUMEN-INFORMAZIOA, SEXUAREN, ADINAREN, AMAITUTAKO IKASKETEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA	37
4. HONDAKINAK ETA KONTSUMOA, SEXUAREN, ADINAREN, AMAITUTAKO IKASKETEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA	38
5. INGURUMEN-PROPOSAMENAK ETA -NEURRIAK, SEXUAREN, ADINAREN, AMAITUTAKO IKASKETEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA	41

## 0. Alderdi metodologikoak

### 0.1 FITXA TEKNIKOA

<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Azterketaren helburua eta unibertsoa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Legazpiko 2004ko Ekobarometroa egitea da proiektu honen helburua.</li> <li>– Legazpin bizi diren 15 urtetik gorako herritarrek osatu dute azterketaren unibertsoa.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Ikerketa kuantitatiboa egiteko teknika:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Aztertu beharreko unibertsoaren lagin adierazgarriei egin zaizkie galderak, etxez etxe, galdetegi egituratu bat erabiliz.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Laginaren tamaina:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Legazpiko 15 urtetik gorako 390 pertsona.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Laginketa-mota:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Laginketa hainbat etapatan egin da. Ausaz hautatu dira eremuak, Legazpiko eremu bakoitzaren pisu demografikoak baldintzatutako probabilitatea kontuan hartuta; eta, ibilbide aleatorioen eta sexuaren, adinaren eta jarduerarekin duten loturaren araberrako kuota zuzentzaileak aplikatu dira, lagina osatu duten pertsonen azken hautaketa egiteko.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Datuen adierazgarritasun estatistikoa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Datuen gehieneko lagin-errore estatistikoa <math>\pm</math> % 5koa da, % 95,5eko konfiantza-tarte baterako, <math>p=q=0,5</math> den laginketa aleatorio sinplea bada.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Prozesu metodologikoaren etapak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Aztergaiarekin lotutako zeharkako informazioa biltzea.</li> <li>– Material edo txosten metodologikoa diseinatzea proiektuaren prozesurako.</li> <li>– Galdetegien zirriborroak egitea.</li> <li>– Laginketa-diseinua egitea.</li> <li>– Behin betiko galdetegi baliozkotzat jotzea eta EAeko bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea.</li> <li>– Landa-eremuko sarea hautatzea eta trebatzea.</li> <li>– Landa-lana egitea edo informazioa zuzenean biltzea etxez etxeko elkarrizketa pertsonalen bidez, eta dagozkien segimendu-eta kontrol-mekanismoak aplikatzea.</li> <li>– Informazioa oinarri informatikoan grabatzea (ACCESS), eta aldagaien barneko eta aldagaien arteko kontrol-arauak ezartzea, datuak koherenteak direla eta ongi grabatu direla bermatzeko.</li> <li>– Grabatutako informazioa tratatzea: araztea, berriz kodetzea, ustiapen estatistikoak egitea.</li> <li>– Barne-informazioa analizatzea EAeko 2003ko Ekobarometro Sozialaren datuekin alderatuz.</li> </ul> </li> </ul>

## 0.2 LAGINAREN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

## Laginaren ezaugarrien datuak

ADIN-TALDEAK	Abs.	%	OKUPAZIOA	Abs.	%
15-30 urte .....	113	29.0	Lanean .....	197	50.5
31-64 urte .....	198	50.7	Langabezian .....	10	2.6
≥ 65 urte .....	79	20.3	Ez-aktibo (ikasleak, etxekoandreak...) ..	182	46.6
<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>	Beste zenbait .....	1	0.3
<b>SEXUA (≥ 15 URTE)</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>
Gizonezkoak .....	195	50.0	<b>EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>
Emakumezkoak .....	195	50.0	Ongi (zuzen + nahiko ongi) .....	208	53.4
<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>	Zailtasunez (zer edo zer + hitz/ esamolde hutsa) .....	84	21.5
<b>JAIOTERRIA</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	Batere ez .....	97	24.9
Udalerrian .....	188	48.2	ED/EDE.....	1	0.3
Lurralde historikoan .....	80	20.5	<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>
EAEn eta Nafarroan .....	25	6.4	<b>AMAITUTAKO IKASKETAK</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>
EAEtik eta Nafarroatik kanpo.....	93	23.9	Lehen mailakoak edo gutxiago .....	223	57.2
ED/EDE.....	4	1.0	Bigarren mailakoak, Batxilergoa, LH .....	109	27.9
<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>	Goi-mailakoak .....	55	14.1
<b>AMAITUTAKO IKASKETAK</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	Beste zenbait .....	2	0.5
Lehen mailakoak edo gutxiago .....	223	57.2	ED/EDE.....	1	0.3
Bigarren mailakoak, Batxilergoa, LH .....	109	27.9	<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>
Goi-mailakoak .....	55	14.1			
Beste zenbait .....	2	0.5			
ED/EDE.....	1	0.3			
<b>GUZTIRA</b>	<b>390</b>	<b>100.0</b>			


## I. Herritarren gogobetetze-maila tokiko komunitatearekiko

### I.1 UDALERRIKO HERRITARREN ASOZIAZIONISMO-MAILAK

Legazpiko erakunde sektorial eta taldeetan dauden asoziazionismo-mailak kontuan hartuta, batez besteko asoziazionismo-maila % 7 ingurukoa dela kalkulatu da, eta EAEn % 6koa zela kalkulatu zen 2003an.

Bai EAEn, bai Legazpin, ekologiaren aldeko edo natura babesteko talde eta erakundeetako asoziazionismo-maila batez besteko horiek baino txikiagoa da, herritarren % 3k eta % 1ek hartzen dute parte horietan, hurrenez hurren.


1. **grafikoa:** Gaur egun mota hauetako elkarte eta erakunderen bateko bazkide zara? bazkidedutako pertsonen ehunekoa (%).



### I.2 UDALERRIAK BIZITOKI GISA ERAGITEN DIEN GOGOBETETZE-MAILA


Herritarren gehiengoak esan du atsegin duela Legazpi bizitoki gisa: herritarren % 44k asko atsegin du eta % 48k nahiko.

2. **grafikoa:** Atsegin duzu udalerrria bizitoki gisa? (%).




### I.3 UDALERRIAK LANTOKI GISA ERAGITEN DIEN GOGOBETETZE-MAILA

3. grafikoa: Udalerrian bertan lan egiten duzu?



4. grafikoa : Atsegin duzu udalerria lantoki gisa? (Portzentajeak, laginaren %57ean oinarrituta).




Legazpiko herritar okupatuak % 57k udalerrian bertan lan egiten du. Horietako gehienek atsegin dute udalerria lantoki gisa: asko atsegin dutenak % 43 dira, eta nahiko atsegin dutenak % 50.

### I.4 UDALERRIAK ESKAINTZEN DITUEN HAINBAT ALDERDIK ERAGITEN DIETEN GOGOBETETZE-MAILA ETA POZIK EZ EGOTEKO ARRAZOI NAGUSIAK

Legazpik eskaintzen dituen alderdi horiek kontuan hartuta, hauek dira herritarrek gehien atsegin dituztenak (asko + nahiko), gehienetik gutxienerako ordenan: jendearekin erlazionatzeko aukera (% 96), udalerrian sentitzen den segurtasun-maila pertsonala (% 94), zerbitzu sozialen eta osasun-zerbitzuen hornidura eta kalitatea (% 94) eta hobbyetan jarduteko aukera (% 90).

5. grafikoa: Atsegin dituzu udalerririk eskaintzen dituen alderdi hauek? (%).




1. taula: Udallerriak eskaintzen dituen alderdi hauetan pozik ez egoteko arrazoi nagusiak (ez asko + batere ez) (%).

	Ez dago	Baliabide gutxi	Funtzionamendu txarra	Gaizki kudeatuta	Kalitate txarra	Garestiak dira	Ez dago parte-hartzerik	Beste zenbait	ED/EDE	% (ez asko + batere ez) laginketa osoaren arabera
a) Etxebizitza eskuratzeko aukera eta etxebizitzaren kalitatea	6	2	2	3	2	41	-	-	-	56
b) Lan-aukerak	24	10	1	7	3	-	-	-	1	45
c) Natur gune kopurua (berdeguneak, ibaiak...)	9	10	2	11	2	-	-	-	-	34
d) Udallerriaren ingurune naturalaren kalitatea	2	4	1	6	2	-	-	-	-	15
e) Eraikitako espazioaren kalitatea (kaleak, espazio publikoak, plazak, garbitasuna, irudia)	2	4	5	11	7	-	-	-	-	29
f) Zerbitzu sozialen eta osasun-zerbitzuen hornidura eta kalitatea	-	1	3	-	1	-	-	-	-	5
g) Kultur zerbitzuen eta aisialdiko zerbitzuen hornidura eta kalitatea	3	4	3	2	2	-	2	-	-	16
h) Hezkuntza-ekipamenduen hornidura eta irakaskuntzaren kalitatea	-	1	1	1	1	-	-	-	-	4
i) Garraiobide publikoko zerbitzuen hornidura eta kalitatea	4	9	7	2	1	-	-	-	-	23
j) Udallerriaren etorkizunari eragingo dioten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera	17	1	2	4	1	-	5	-	1	31
k) Udallerrian sentitzen den segurtasun-maila pertsonala	-	-	2	1	1	-	-	-	-	4
l) Jendearekin erlazionatzeko aukera	-	1	1	-	-	1	-	-	-	3
m) Hobbyetan jarduteko aukera	3	2	-	-	2	-	1	-	1	9

Legazpik eskaintzen dituen alderdien artean, herritarrek bi gaitzesten dituzte nagusiki: etxebizitza eskuratzeko aukera eta etxebizitzaren kalitatea eta lan-aukerak (herritarren % 56 eta % 45, hurrenez hurren). Herritarrak pozik ez egoteko arrazoi nagusiak hauek dira: etxebizitza garestia izatea (% 41) eta lan-aukerarik ez egotea edo gutxi izatea (% 24 eta % 10, hurrenez hurren).

## I.5 UDALERRIAN LANDU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO INGURUMEN-ALDERDIAK

6. grafikoa: Udallerrian landu beharreko lehentasunezko hiru ingurumen-alderdi nagusiak (%).




Galdeketa egin zaien herritarren iritziz, Legazpin, lehentasunez, hiru ingurumen-alderdi nagusi hauek hobetu behar dira: natur ondarea babestea eta berdegune gehiago ipintzea (% 49), poluzio atmosferikoaren inguruko arazoak konpontzea (% 34) eta garraio publikoko zerbitzuak hobetzea (% 29).

Herritarrek ez diote hainbesteko garrantzia eman baliabide naturalak aurrezteari eta eraginkortasunez erabiltzea sustatzeari (% 10).

## 1.6 UDALERRIAN LANDU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO ALDERDI SOZIALAK

Legazpiko herritarren arabera, udalerrian alderdi sozial hauek landu behar lirateke batez ere: emakumezkoei lan-merkatuan sartzen laguntzea (% 57), etxebizitza izateko aukera bultzatzea (% 52) eta gazteentzako zerbitzu gehiago jartzea (% 39).


7. grafikoa: Udalerrian landu beharreko lehentasunezko hiru alderdi sozial nagusiak (%).



## 1.7 UDALERRIAN LANDU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK

Alderdi sozioekonomikoei dagokienez, aipatzekoa da Legazpiko herritarren % 85ek uste duela enplegua sustatzeko eta langabezia gutxitzeko planak bultzatu behar direla batez ere. Eta, horren ondoren, garrantzi handia eman diote industria garbiak eta teknologia berriak sustatzeari (% 51) eta tokiko merkataritza sustatzeari (% 43).


8. grafikoa: Udalerrian landu beharreko lehentasunezko hiru alderdi sozioekonomiko nagusiak (%).



## I.8 UDALERRIAK DITUEN GABEZIA OROKOR NAGUSIAK

Aparkalekuak dira Legazpiko herritarrek aipatu duten arazo edo gabezia nagusia: herritarren % 25ek lehen arazoa dela esan du eta % 18k bigarren arazoa. Bigarren arazo gisa etxebizitza aipatu dute: herritarren % 17rentzat lehen arazoa da, eta % 9rentzat bigarren arazoa.

9. grafikoa: Udalerriko bi arazo edo gabezia nagusiak (%).




## 2. Eremu publiko irekiak eta zerbitzuak udalerrian

### 2.1 UDALERRIKO EREMU PUBLIKO IREKIEN ETA ZERBITZUEN HURBILTASUNA (DENBORAREN ARABERA)

Legazpiko herritarren iritziz, birziklatzeko edukiontzia, garraio publikoko zerbitzuak eta elikagai-dendak dauzkate etxetik hurbilen. Herritar askok, halaber, etxetik 15 minutura baino gutxiagora dituzte derrigorrezko irakaskuntza-zentro eta haurtzaindegiak, aurrezki-kutxa eta bankuak eta osasun-zerbitzuak.


Galdetutako herritarren % 53k adierazi du 15 minutu baino gehiago egin behar dituela.

10. grafikoa: Zenbat denbora behar duzu –oinez joanda– zerbitzu hauetaraino iristeko? <sup>1</sup> (%)



<sup>1</sup>Europako Ingurumen Agentziak "15 minutu oinez" kontzeptua erabiltzen du irigarritasuna definitzeko. Eta hori 300 metroko distantziaren baliokide dela kalkulatu da.

1. irudia: Zerbitzu hauek etxetik 15 minutura edo gutxiagora (<300 m) dituzten pertsonak (%)




### 3. Ingurumen-informazioa

#### 3.1 INGURUMEN-INFORMAZIO MAILARI BURUZKO GOGOETA

Legazpiko herritarren % 45ek esan du baduela udalerriko ingurumen-arazoei buruzko informazioa (oso + nahiko handia); EAEko 2003ko Ekobarometroan % 60k adierazi zuen hori. Kontuan izan behar da 2003an ez zela galdetu zehazki udalerriri buruz, galdera orokorragoa zen.

Bestalde, Legazpiko herritarren % 55ek uste du informazio gutxi duela edo ez duela batere informaziorik. Beraz, Legazpin ez bezala, EAE osoa aintzat hartuta, herritarrek informazio gehiago dute ingurumen-arazoei buruz.

11. grafikoa: Zure ustez, zer informazio-maila duzu udalerriko ingurumen-arazoei buruz? <sup>1</sup> (%)




<sup>1</sup> 2003ko Ekobarometro Sozialean ez zen udalerriri buruz galdetu, galdera orokorra egin zen.

#### 3.2 INGURUMEN-INFORMAZIOAREN EZAUGARRIAK

Legazpiko herritarrentzat, ingurumen-informazioaren ezaugarri nagusia interes-maila da: herritarren % 93k uste du informazioa oso interesgarria dela (oso edo nahiko ados). Halaber, maila pertsonalean aplikatu daitekeela (% 88) eta ulerterraza dela (% 87) aipatu dute herritarrek.

2003ko Ekobarometro Sozialaren kasuan, EAEko herritarrek aipatu zutena bat dator Legazpiko datuekin, baina orduan ez zioten Legazpin adinako garrantzia eman ingurumen-informazioa ulerterraza izateari.

12. grafikoa: Ingurumen-informazioaren ezaugarriak (%)



## 4. Mugikortasuna eta garraioa

### 4.1 MUGIKORTASUN-ADIERAZLEAK

#### 4.1.1 ADIERAZLE GLOBALAK

2. taula: Mugikortasun-adierazle globalak

	Biztanleak	Joan-etorria egunero	Joan-etorrien eremua		Joan-etorrien erregulartasuna		Eguneroko joan-etorrien batezbestekoa biztanleko	Joan-etorrien batez besteko distantzia	Joan-etorrien batez besteko denbora	Eguneroko joan-etorrien batez besteko distantzia biztanleko	Eguneroko joan-etorrien batez besteko denbora biztanleko	Joan-etorrien batez besteko abiadura biztanleko
			Udalerrian	Udalerritik kanpo	Sistematikoa	Ez-sistematikoa						
	Kop.	Kop.	%	%	%	%	Kop.	km	min	km	min	km/h
Legazpi	8.741	23.251	80.6	19.4	43.1	56.9	2.66	5.32	13.55	14.17	36.10	23.56
EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	1.853.973	4.724.850	62.9	37.1	44.5	55.5	2.55	10.34	20.00	26.37	51.00	31.06

Legazpin bildutako datuen arabera, joan-etorri gehienak udalerrian bertan egiten dira (% 81). Joan-etorrien % 43 sistematikoak dira; hots, berez, lanari eta ikasketei lotutakoak dira, horiek eskatzen baitute sistematikotasun handiena.

Legazpiko herritarren mugikortasun-adierazleen balioak, oro har, 2003ko Ekobarometro Sozialean<sup>1</sup> EAE osorako lortutako balioak baino txikiagoak dira: joan-etorrien batez besteko distantzia txikiagoa, joan-etorrien batez besteko iraupen txikiagoa, biztanleko joan-etorrien batez besteko distantzia txikiagoa, joan-etorrietarako denbora gutxiago biztanleko eta joan-etorrien batez besteko abiadura txikiagoa biztanleko. Biztanle bakoitzak egiten dituen joan-etorrien kopurua soilik da handiagoa.

#### 4.1.2 JOAN-ETORRIEN BANAKETA OROKORRA

3. taula: Joan-etorrien banaketa, arrazoen, moduen eta iraupenaren arabera.

ARRAZOIAK	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	MODUAK	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	DENBORA	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)
• Lana	30.3	35.8	• Auto pribatua	28.8	37.4	• 5 min baino gutxiago		
• Ikasketak	12.8	8.7	• Autobusa	3.0	10.0	• 6-10 min	30.4	21.5
• Eguneroko erosketak	17.2	20.1	• Trena edo metroa	1.2	6.3	• 11-20 min	25.7	24.6
• Haurrak eskolara eramatea	3.4	4.2	• Oinez	65.7	41.4	• 21-30 min	3.6	13.6
• Aisialdia	30.2	24.1	• Motoa	0.2	1.3	• 31-60 min	4.0	9.2
• Asteke erosketak	5.2	5.0	• Bizikleta	0.2	1.0	• 60 min baino gehiago	1.2	3.0
• Beste zenbait	0.8	2.1	• Konbinatua	0.4	2.3			
			• Beste zenbait	0.5	0.4			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100.0</b>	<b>100.0</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>100.0</b>	<b>100.0</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>100.0</b>	<b>100.0</b>

<sup>1</sup> Kontuan izan behar da 2003ko Ekobarometro Sozialean galdeketa egin zitzaion pertsonaren (beti du 15 urtetik gora) datuetan oinarrituta atera zela mugikortasun-adierazleei buruzko informazioa; eskualdeko eta udalerriko ekobarometroak, aldiz, galdeketa egin zitzaion pertsonaren datuak azaltzeaz gain, etxeko gainerako kideei buruzko galderak ere egiten ziren (adina kontuan izan gabe; beraz, 15 urtetik beherako pertsonak ere bazeuden). Hori dela eta, garrantzitsuagoa da, estatistikaren ikuspegitik, eskualdeko eta tokiko mugikortasun-adierazleen adierazgarritasun-maila.

Legazpiko herritarren joan-etorrien arrazoi nagusiak hauek dira: lana (% 30), aisialdia (% 30), eguneroko erosketak (% 17) eta ikasketak (% 13).

Joateko edo etortzeko moduei dagokienez, "oinez" mugitzen dira gehien herritarrak; joan-etorrien % 66 egiten da oinez. Horren ondoren, auto pribatua erabiltzen da gehien (% 29); askoz ere gutxiago erabiltzen dira autobusa (% 3) eta tren (% 1). EAEn, oro har, joerak antzekoak izan arren, Legazpin, batez ere, "oinez" mugitzeko joera handiagoa dago.

Joan-etorrien % 65 gehienez 10 minutuan egiten dira. Eta joan-etorrien % 29 10 minutu eta ordu-erdi bitartekoak dira. 2003ko Ekobarometro Sozialean biltzen diren datuekin alderatuta, EAEn, oro har, 21 minututik gorako joan-etorriak Legazpin baino ugariagoak dira.

4. taula: Joan-etorrien banaketa helburuko udalerraren arabera, eta joan-etorrien arrazoiak (%).

ARRAZOIA	Joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera	Legazpiko herritarrak joaten diren udalerrak, joan-etorrien arrazoiaren arabera									
		Legazpi %	Zumarraga %	Donostia-SS %	Urretxu %	Oñati %	Arrasate %	Beasain %	Olaberria %	Beste zenbait %	Guztira %
Lana	30.3	61.8	10.4	2.6	5.1	5.1	1.5	1.7	0.2	11.6	100.0
Ikasketak	12.8	73.0	5.8	6.5	1.8	0.7	3.4	0.0	0.0	8.7	100.0
Eguneroko erosketak	17.2	98.4	0.5	0.0	0.2	0.3	0.0	0.0	0.0	0.7	100.0
Haurrak eskolara eramatea	3.4	98.7	0.0	0.0	1.3	0.0	0.0	0.0	0.0	0.0	100.0
Aisialdia	30.2	91.4	1.8	2.6	1.4	0.1	0.2	0.2	0.0	2.4	100.0
Asteko erosketak	5.2	76.0	4.6	2.5	0.5	0.2	0.3	3.7	8.9	3.3	100.0
Beste zenbait	0.8	73.3	0.0	5.6	4.4	6.6	0.0	2.2	0.0	7.8	100.0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100.0</b>	<b>80.6</b>	<b>4.8</b>	<b>2.6</b>	<b>2.3</b>	<b>1.8</b>	<b>1.0</b>	<b>0.8</b>	<b>0.5</b>	<b>5.7</b>	<b>100.0</b>

Lanera eta ikastera joateko eta asteko erosketak egiteko mugitzen dira, batez ere, Legazpiko herritarrak udalerritik kanpo. Oro har, Zumarragara joateko joera handia dute; horren atzetik, Donostiara eta Urretxura joan ohi dira (ikastera eta lanera batez ere). Asteko erosketak egiteko, Olaberria joaten dira batez ere.

#### 4.1.3 DIZTANTZIEN AZTERKETA

5. taula: Distantziak joan-etorrien arrazoiaren arabera.

JOAN-ETORRIEN ARRAZOA	Eguneroko joan-etorrien batez besteko distantzia biztanleko km		Joan-etorrien distantzia (Legazpi)							GUZTIRA
	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	<= 1 km	1,1-3 km	3,1-5 km	5,1-10 km	10,1-20 km	20,1-50 km	50 km baino gehiago	
Lana	6.2	12.6	48.7	11.7	8.9	8.8	12.1	6.8	3.1	100.0
Ikasketak	3.0	2.1	67.1	4.6	7.3	3.8	3.0	6.6	7.6	100.0
Eguneroko erosketak	0.4	0.7	85.0	11.9	2.0	0.9	0.2	-	-	100.0
Haurrak eskolara eramatea	0.1	0.3	93.5	2.8	2.8	-	0.9	-	-	100.0
Aisialdia	3.3	8.8	73.1	15.2	3.8	2.6	1.3	0.4	3.6	100.0
Asteko erosketak	0.9	0.8	57.1	15.5	4.3	5.6	12.4	2.5	2.5	100.0
Beste zenbait	0.3	0.9	50.0	25.0	4.2	-	4.2	-	16.7	100.0
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.2</b>	<b>26,4</b>	<b>66.7</b>	<b>11.9</b>	<b>5.5</b>	<b>4.4</b>	<b>5.2</b>	<b>3.1</b>	<b>3.3</b>	<b>100.0</b>

Legazpin, batez beste, biztanleko 14,2 km egiten dituzte egunean, 2003ko Ekobarometro Sozialean erregistratutako batez besteko distantzia (26,4 km) baino txikiagoa. Aipatzekoa da joan-etorrien erdietan baino gehiagotan (% 66,7) kilometro bat baino gutxiago egiten dutela.

Arrazoiei dagokienez, herritarrek lanera joateko egiten dituzte eguneko batez besteko distantzia luzeenak (6,2 km); horren atzetik, aisialdirako (3,3 km) eta ikasketetarako mugitzen dira urrutien (3 km).

Lanera joateko eta aisialdiko joan-etorri gehienetan kilometro bat baino gutxiago egiten da (% 49 eta % 73, hurrenez hurren). Era berean, ikasketei dagozkien joan-etorrien % 67an kilometro bat baino gutxiago egiten da.

6. taula: Distantziak joan-etorriak egiteko moduen arabera.

JOAN-ETORRIAK EGITEKO MODUAK	Eguneroko joan-etorrien batez besteko distantzia biztanleko km		Joan-etorrien distantzia (Legazpi)							GUZTIRA
	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	<= 1 km	1,1-3 km	3,1-5 km	5,1-10 km	10,1-20 km	20,1-50 km	50 km baino gehiago	
Auto pribatua	9.6	19.2	27.2	14.6	14.2	12.0	15.9	9.1	7.0	100.0
Autobusa	1.5	3.1	15.6	6.7	27.8	10.0	12.2	7.8	20.0	100.0
Trena edo metroa	1.3	1.6	-	-	8.1	8.1	8.1	35.1	40.5	100.0
Oinez	1.4	1.3	87.8	10.9	0.5	0.8	-	-	-	100.0
Motoa	0.0	0.4	14.3	71.4	-	-	-	-	14.3	100.0
Bizikleta	0.0	0.1	14.3	57.1	-	14.3	14.3	-	-	100.0
Konbinatua	0.2	0.5	-	-	40.0	-	40.0	10.0	10.0	100.0
Beste zenbait	0.0	0.1	78.6	-	14.3	-	7.1	-	-	100.0
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.2</b>	<b>26.4</b>	<b>66.7</b>	<b>11.9</b>	<b>5.5</b>	<b>4.4</b>	<b>5.2</b>	<b>3.1</b>	<b>3.3</b>	<b>100.0</b>

Joan-etorriak egiteko moduaren arabera egindako distantziei dagokienez, EAEn bezalaxe, Legazpin auto pribatuan egiten da pertsonako eguneko batez besteko joan-etorriak luzeena (9,6 km). Hurrenkerari jarraituz, Legazpin, batez beste, 1,5 km egiten dira autobusez, 1,4 km oinez eta 1,3 km trenez.

Auto pribatuan egiten diren joan-etorrien % 56an 5 km egiten dira gehienez; bestalde, autobusez egiten diren joan-etorrien % 28an 3-5 km egiten dira, eta % 20an 50 km baino gehiago.

Bestalde, trenez egiten diren joan-etorrien % 76an 20 km baino gehiago egiten dira.

#### 4.1.4 DENBORAREN AZTERKETA

7. taula: Joan-etorriak egiteko erabiltzen den denbora, arrazoiaren arabera

JOAN-ETORRIEN ARRAZOIA	Eguneroko batez besteko denbora biztanleko (min)		Joan-etorrien denbora-tarteak (Legazpi)						GUZTIRA
	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	5 min baino gutxiago	6-10 min	11-20 min	21-30 min	31-60 min	60 min baino gehiago	
Lana	11.2	18.7	26.1	35.3	27.8	5.1	4.8	0.9	100.0
Ikasketak	5.5	4.4	24.0	42.3	18.1	4.1	8.4	3.1	100.0
Eguneroko erosketak	4.0	4.8	47.1	36.6	15.3	0.6	0.2	0.2	100.0
Haurrak eskolara eramatea	0.9	1.2	39.8	40.7	18.5	0.9	-	-	100.0
Aisialdia	12.5	18.5	25.3	30.8	34.1	4.0	4.0	1.7	100.0
Asteko erosketak	1.6	1.7	35.2	34.6	25.3	1.9	2.5	0.6	100.0
Beste zenbait	0.4	1.3	44.0	16.0	12.0	12.0	16.0	-	100.0
<b>GUZTIRA</b>	<b>36.1</b>	<b>51.0</b>	<b>30.4</b>	<b>35.0</b>	<b>25.7</b>	<b>3.6</b>	<b>4.0</b>	<b>1.2</b>	<b>100.0</b>

Legazpin, oro har, EAEn baino denbora gutxiago behar da, batez beste, biztanleko joan-etorrietarako. Joera hori bat dator joan-etorrien arrazoiei dagokienez, ikasketen kasuan izan ezik. Joan-etorrien % 91 20 minutuan edo gutxiagoan egiten da.

Lanera joateko egiten diren joan-etorrien % 89 eta aisialdiko joan-etorrien % 90 20 minutuan edo gutxiagoan egiten dira; ikastera joateko joan-etorrietan, berriz, 10 minutu edo gutxiago behar izaten dira.

8. taula: Joan-etorriak egiteko erabiltzen den denbora, moduen arabera.

JOAN-ETORRIAK EGITEKO MODUAK	Eguneroko joan-etorrien batez besteko distantzia biztanleko km		Joan-etorrien denbora-tarteak (Legazpi)						
	Legazpi	EAE (15 urtetik gorako pertsonak)	5 min baino gutxiago	6-10 min	11-20 min	21-30 min	31-60 min	60 min baino gehiago	GUZTIRA
Auto pribatua	12.4	22.7	33.1	27.4	22.2	6.4	9.2	1.6	100.0
Autobusa	1.9	6.1	18.0	27.0	23.6	5.6	21.3	4.5	100.0
Trena edo metroa	1.4	3.0	2.7	18.9	5.4	18.9	29.7	24.3	100.0
Oinez	19.8	16.7	30.3	38.9	27.8	2.0	0.5	0.5	100.0
Motoa	0.1	0.4	57.1	28.6	-	-	14.3	-	100.0
Bizikleta	0.1	0.5	14.3	28.6	42.9	-	14.3	-	100.0
Konbinatua	0.3	1.5	-	30.0	40.0	10.0	10.0	10.0	100.0
Beste zenbait	0.1	0.1	40.0	46.7	13.3	-	-	-	100.0
<b>GUZTIRA</b>	<b>36.1</b>	<b>51.0</b>	<b>30.4</b>	<b>35.0</b>	<b>25.7</b>	<b>3.6</b>	<b>4.0</b>	<b>1.2</b>	<b>100.0</b>



Biztanleko, batez beste, 19,8 minutu egiten dira oinez, auto pribatuan 12,4 minutu, autobusez 1,9 minutu eta trenez 1,4 minutu. EAEn egiten diren joan-etorrietan, batez beste, denbora gehiago behar izaten da Legazpin baino, oinez egiten diren joan-etorrietan izan ezik.

Oinezko ia joan-etorri guztietan (% 97) 20 minutu behar izaten dira gehienez. Auto pribatuan egiten diren joan-etorri gehienetan (% 83) 20 minutu behar izaten dira gehienez, eta autobusez egiten diren joan-etorrien % 69an 20 minutu edo gutxiago.


Trenez egiten diren joan-etorrien % 73an, berriz, 21 minutu baino gehiago behar izaten dira.

## 4.2 IKASLEEK IBILGAILU PRIBATUA ZENBAT ETA ZERGATIK ERABILTZEN DUTEN

13. grafikoa: Zure etxeko zenbat pertsona ari dira ikasten? (%). 14. grafikoa: Ikasten ari direnetatik zenbat joaten dira ikastetxera ibilgailu pribatuan (autoa, motoa)? (ikasleak dituzten etxeen %41ean oinarrituta).



**15. grafikoa:** Zergatik erabiltzen dute ibilgailu pribatua? Eman bi arrazoi nagusiak (ibilgailu pribatuan mugitzen diren ikasleak dauden etxeen % 18an oinarrituta).




Datuen arabera, Legazpiko etxeen % 41ean gutxienez ikasle bat dago. Etxe horien % 18an, ikasleak ibilgailu pribatuan joan ohi dira ikastetxera. Horien artean, ibilgailu pribatua erabiltzeko bi arrazoi nagusiak erosotasun pertsonala (% 82) eta beste aukerarik ez izatea (% 44) dira.

## 5. Hondakinak eta kontsumoa

### 5.1 BIRZIKLATZEKO HONDAKINEN BANAKETA-MAILA ETXEAN

16. grafikoa: Zer maiztasunez bereizten dituzu hondakin-mota hauek, gero birziklatu ahal izateko? (%).




Legazpiko herritarren % 89k eta % 95ek adierazi dute (beti + nahiko maiz) banatzen dituztela papera/kartoia, beira eta plastikoak/metalak. 2003ko Ekobarometroaren kasuan, ehuneko horiek txikiagoak ziren: % 77 eta % 89.

Birziklatzeko pilak banatzeko maiztasunari dagokionez, Legazpiko herritarren % 75ek eta EAEko % 79k adierazi dute banatzen dituztela (beti + nahiko maiz).

Produktu arriskutsuen (disolbatzaileak, pintura...), fluoreszenteen eta sukaldeko olio erabilien kasuan, asko txikitzen da normalean produktu horiek banatzen dituzten pertsonen ehunekoa, bi kasuetan.

### 5.2 HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO UDALERRIKO ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIO-MAILA

17. grafikoa: Udalerrian badago produktu horiek gaika biltzeko zerbitzurik? (%).




Legazpiko 15 urtetik gorako ia herritar guztiak adierazi dute udalerrian badagoela papera, beira, pilak, plastikoak, etab. gaika biltzeko zerbitzua.

2003ko Ekobarometro Sozialeko datuarekin alderatuta, ikus daiteke Legazpiko ehunekoa EAEkoa baino handiagoa dela, EAEkoa ere oso handia izan arren (% 89).

### 5.3 ETXEKO HONDAKINEN BEREIZKETAN ETA SAILKAPENEAN ERAGINA DUTEN ALDERDIAK

18. grafikoa: Zenbaterainoko garrantzia dute zuretzat alderdi hauek, etxeke hondakinak neurri handiagoan ez bereizteko eta ez sailkatzeko? (%).




Etxean hondakin-poltsak ipintzeko lekurik ez izatea eta etxetik hurbil edukiontzirik ez izatea dira Legazpiko etxeetan hondakinak ez banatzeko eta sailkatzeko arrazoi nagusiak (% 35 eta % 26, hurrenez hurren).

EAE mailan adierazitako arrazoi nagusiak bat datoz Legazpikoekin, baina ehunekoak handiagoak dira.


Bestalde, zenbait arrazoi pertsonalek (hondakinak nola bereizi ez jakitea, hondakinak bereizteak etorkizunerako dituen abantailak ez ezagutzea, etab.) ez dute horrenbesteko eraginik herritarren etxeke hondakinak bereizteko eta sailkatzeko maiztasunean.

### 5.4 GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERA-MAILA ETA EZ ERABILTZEKO ARRAZOTIAK

19. grafikoa: Zer maiztasunez erabiltzen duzu garraio publikoa? (autobusa, tren...) (%).



20. grafikoa: Zein da garraio publikoak ez erabiltzeko arrazoi nagusia? (Portzentajeak, laginaren % 24an eta % 44an oinarrituta).




Legazpin zein 2003ko Ekobarometro Soziallean bildutako datuen arabera, herritarren % 18k eta % 36k, hurrenez hurren, adierazi dute oso maiz erabiltzen dituztela garraio publikoak (autobusa, tren, etab.). Bestalde, % 44k eta % 24k, hurrenez hurren, ez dute ia inoiz egiten. Beraz, ikusten da garraio publikoa erabiltzeko joera txikiagoa dela Legazpin EAEn baino.


Garraio publikoak ez erabiltzeko arrazoi nagusi gisa hauek aipatu dituzte: beharrik ez izatea eta erosotasun pertsonala (% 44, bi kasuetan). Gutxiago aipatzen dira garraio publikoaren eskaintzarekin loturiko alderdiak, esate baterako, garraibide publikorik eza edota zerbitzuaren moteltasuna.

## 5.5 ETXEKO UR-KONTSUMOA TXIKITZEA ETA EZ TXIKITZEKO ARRAZOIAK

**21. grafikoa:** Zer maiztasunekin izaten duzu etxean ur-kontsumoa txikitzeko joera? (%).



**22. grafikoa:** Zergatik ez duzu izaten etxean ur gutxiago kontsumitzeko joera? (Portzentajeak, laginaren % 15ean eta % 15ean oinarrituta).




Legazpin zein 2003ko Ekobarometro Sozialean bildutako datuen arabera, herritarren % 63k eta % 44k, hurrenez hurren, adierazi dute oso maiz izaten dutela etxean ur gutxiago kontsumitzeko joera. Bestalde, % 15ek, bi kasuetan, adierazi du ez duela ia inoiz egiten.


Etxean uraren kontsumoa ez txikitzeko adierazi dituzten arrazoi nagusiak hauek dira: batez ere, ardura falta (% 62%), eta, gero, behar-beharrezkoa soilik kontsumitzen dutela pentsatzea (% 22).

## 5.6 ETXEKO ELEKTRIZITATE-KONTSUMOA TXIKITZEA ETA EZ TXIKITZEKO ARRAZOIAK

**23. grafikoa:** Zer maiztasunekin izaten duzu etxean elektrizitate-kontsumoa txikitzeko joera ? (%).



**24. grafikoa:** Zergatik ez duzu izaten elektrizitate gutxiago kontsumitzeko joera? (Portzentajeak, laginaren % 12an eta % 12an oinarrituta).




Legazpiko herritarren % 65ek adierazi du oso maiz izaten duela etxean elektrizitate gutxiago kontsumitzeko joera. Eta % 12k adierazi du ia inoiz ez duela izaten horrelako joerarik. Oro har, 2003ko Ekobarometro Sozialean bildutako datuak bat datoz Legazpin erregistratutako joerekin.


Etxean elektrizitate gutxiago ez kontsumitzeko eman dituzten arrazoi nagusiak hauek dira: ardurarik ez izatea (% 54) eta behar-beharrezkoa soilik kontsumitzen dutela pentsatzea (% 29).

## 5.7 ELIKAGAI EKOLOGIKOEN KONTSUMO-MAILA ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOTIAK

**25. grafikoa:** Zer maiztasunekin kontsumitzen dituzu ekologikoki ekoiztako elikagaiak? (fruta, barazki... ekologikoak) (%).



**26. grafikoa:** Zergatik ez dituzu sekula kontsumitzen ekologikoki ekoiztako elikagaiak? (Portzentajeak, laginaren % 34an eta % 39an oinarrituta).




Legazpin galdetutako herritarren % 19k eta EAE osoan 2003ko Ekobarometro Sozialerako galdetutakoen % 24k adierazi dute ekologikoki sortutako elikagaiak oso maiz kontsumitzen dituztela (frutak, barazkiak, etab.). Eta % 39k eta % 34k, hurrenez hurren, adierazi dute ez dituztela ia inoiz kontsumitzen horrelako produktuak.


Ekologikoki ekoiztako elikagairik kontsumitzen ez dutenek, batez ere, produktuei buruzko informaziorik ez dutela (% 50) argudiatu dute. 2003ko Ekobarometro Sozialesan interes falta zen nagusi (herritarren % 29).

## 5.8 PRODUKTU EKOLOGIKOEN KONTSUMO-MAILA ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOTIAK

**27. grafikoa:** Zer maiztasunekin kontsumitzen dituzu produktu ekologikoak (garbiketakoak...)? (%).



**28. grafikoa:** Zergatik ez dituzu sekula kontsumitzen produktu ekologikoak (garbiketakoak...)? (Portzentajeak, laginaren % 33an eta % 43an oinarrituta).




Legazpiko herritarren % 12k adierazi du oso maiz kontsumitzen dituela produktu ekologikoak (garbiketakoak, etab.). Eta % 43k adierazi du ez dituela ia inoiz kontsumitzen horrelako produktuak. Datuek EAEn erregistratutakoekin bat egiten badute ere, azken kasu horretan handiagoa da produktu ekologikoak kontsumitzeko joera.


Produktu ekologikoak ez kontsumitzeko arrazoi gisa hauek aipatu dituzte: produktu horiei buruzko informaziorik ez izatea (% 58) eta interesik ez izatea (% 18).

### 5.9 KONTSUMO TXIKIKO ETXETRESNA ELEKTRIKOEN ERABILERA-MAILA ETA EZ ERABILTZEKO ARRAZOIAK

**29. grafikoa:** Zein maiztasunekin erabiltzen dituzu kontsumo txikiko etxetresna elektrikoak (hozkaileak, garbigailuak...)? (%)



**30. grafikoa:** Zein da kontsumo txikiko etxetresna elektrikoak ez erabiltzeko arrazoi nagusia? (Portzentajeak, laginaren % 32an eta % 31n oinarrituta).




Legazpiko herritarren % 28k adierazi du oso maiz erabiltzen dituela kontsumo txikiko etxetresna elektrikoak (hozkaileak, garbigailuak, etab.), eta % 31k ez dituela ia inoiz erabiltzen. Datu horiek bat datoz 2003ko Ekobarometro Sozialan bildutakoekin; izan ere, datu horien arabera, herritarren heren batek adierazi zuen ez dituela ia inoiz erabiltzen horrelako gailuak.


Hauek dira kontsumo txikiko etxetresna elektrikoak ez erabiltzeko eman dituzten arrazoi nagusiak: gailu horiei buruzko informaziorik ez izatea (% 63) eta interesik ez izatea (% 19).

### 5.10 BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUEN KONTSUMO-MAILA ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

**31. grafikoa:** Zer maiztasunekin kontsumitzen dituzu bidezko merkataritzako produktuak (elikagaiak, arropa, artisau-lanak...)? (%)



**32. grafikoa:** Zergatik ez dituzu sekula kontsumitzen bidezko merkataritzako produktuak? (Portzentajeak, laginaren % 56an oinarrituta).




Legazpiko herritarren % 10ek adierazi du oso maiz kontsumitzen dituela bidezko merkataritzako produktuak (elikagaiak, arropa, artisau-lanak, etab.), eta % 20k, berriz, noizean behin kontsumitzen dituela. Aitzitik, aipatzekoa da galdeketa egin zaien herritarren % 56k adierazi duela ez duela ia inoiz kontsumitzen bidezko merkataritzako produkturik.

Hauek dira bidezko merkataritzako produktuak ez kontsumitzeko eman dituzten arrazoi nagusiak: bidezko merkataritzako produktuei buruzko informaziorik ez izatea (% 47) eta lortzeko zailtasuna (% 35).

## 6 Ingurumen-proposamenak eta -neurriak

### 6.1 INGURUMENAREN EGOERAK HAINBAT EREMUTAN BERRIKI IZAN DUEN BILAKAERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

**33. grafikoa:** Zure ustez, azken urteotan udalerriko ingurumenaren egoerak hobera egin du, ez da aldatu edo okerrera egin du? Eta EAEkoa? Eta mundukoa?



Legazpiko herritarren erdiek baino gehiagok uste dute azken urteotan ingurumenaren egoerak hobera egin duela, bai udalerrian bertan, bai EAEn (% 70 eta % 61, hurrenez hurren). Aipatzekoa da hobera egin delako ustea handiago dela Legazpin EAE osoan baino.


Ez dute hain balorazio ona egin munduko ingurumen-egoerari buruz, ez Legazpin, ez eta EAEn ere; izan ere, herritarren ustez ingurumenaren egoerak okerrera egin du munduan, oro har (% 27 eta % 48, hurrenez hurren).

### 6.2 INGURUMENA BABESTEKO JARDUEREN NAHIKOTASUN-MAILA UDALERRIAN

Herritarren erdiek baino gehiagok adierazi dute Legazpin ingurumenaren alde behar adina egiten dela (% 59), eta % 36k behar baino gutxiago egiten dela.

2003ko Ekobarometro Sozialean ez zen udalerriari buruzko galderarik egin, EAEn buruz galdetu zen, oro har; hala ere, agerian geratu zen EAEn buruzko pertzepzioa ez zela hain positiboa: ingurumenaren alde behar adina egiten delako ustea zuen herritarren % 43k.


**34. grafikoa:** Ingurumena dela eta, zure ustez udalerrian<sup>1</sup> egiten da: behar baino gehiago, behar adina edo behar baino gutxiago? (%).



<sup>1</sup> 2003ko Ekobarometro Sozialean ez zen norberaren udalerriari buruzko galderarik egin, EAEn buruz galdetu zen.

### 6.3 UDALERRIAN INGURUMENA POLUITZEN DUTEN ERAGILE NAGUSIAK

**35. grafikoa:** Zerrenda honetan aipatzen direnetatik, zein da udalerriko poluzio-eragile nagusia<sup>2</sup>? (%).




<sup>2</sup> 2003ko Ekobarometro Sozialean ez zen norberaren udalerriri buruzko galderarik egin, EAERI buruz galdetu zen.

Datuen arabera, Legazpiko herritarren % 75ek uste du udalerrian ingurumena poluitzen duen eragile nagusia fabrikak direla, eta % 10ek garraiobideak direla uste du.

2003ko Ekobarometro Sozialean, EAERI buruz galdetu zela kontuan hartuta, fabrikei esleitutako erantzukizun-maila txikiagoa zen (% 59), eta garraiobideei esleitutakoa handiagoa (% 20).

### 6.4 INGURUMENA BABESTEKO AURRERAPAUZO GEHIEN EMAN DITUZTEN UDALERRIKO SEKTORE INDUSTRIALAK


**36. grafikoa:** Udalerrian dauden industria-sektoreetatik zein aurrerratu da gehien ingurumena babesteari dagokionez? (%).



Legazpin galdetutako herritarren % 41ek uste du altzairutegiak aurrerratu direla gehien ingurumena babesteari dagokionez. % 28k ez daki esaten udalerriko zein industria-sektorek egin duen aurrera gehien ingurumena babesteari dagokionez; eta % 26k adierazi du galdategiak aurrerratu direla gehien arlo horretan.

## 6.5 INGURUMEN-ARLOAN EAE-KO ENPRESEK DUTEN INPLIKAZIO-MAILARI BURUZKO PERTZEPZIOA


**37. grafikoa:** Zenbateraino zaude ados iritzi honekin? “Gaur egun EAEko enpresak buru-belarri ari dira ingurumen hobeia izan dezagun bermatzeko” (%).



Legazpiko herritarren % 59 nahiko ados dago “gaur egun EAEko enpresak buru-belarri ari dira ingurumen hobeia izan dezagun bermatzeko” iritziarekin, eta % 7 guztiz ados dago horrekin. Galdeketa egindako herritarren % 28 ez dago oso ados edo ez dago batere ados iritzi horrekin.

## 6.6 TOKIKO AGENDA 21 EZAGUNA IZATEA


**38. grafikoa:** Tokiko Agenda 21en berri izan duzu? (%).



Legazpiko herritar askok (% 70) esan dute ez dutela Tokiko Agenda 21en berri izan. Bestalde, galdetutako herritarren % 30ek esan du izan duela Agenda horren berri. Antzeko datuak eman zituen 2003ko Ekobarometro Sozialak; hala ere, EAEn, oro har, Tokiko Agenda 21en ezagutza-maila (% 24) txikixeagoa da Legazpin baino.

## 6.7 TOKIKO AGENDA 21-I BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO INTERESA


39. **grafikoa:** Jaso nahiko zenuke udalerraren Tokiko Agenda 21i buruzko informazioa? (%).



Legazpiko herritarren % 70ek adierazi du Tokiko Agenda 21i buruzko informazioa jaso nahi duela.

## 6.8 HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROETAN ESKU HARTZEKO INTERESA

40. **grafikoa:** Gustatuko litzaizuke herritarrek parte hartzeko Foroetan esku hartzea? (%).



Legazpiko 15 urtetik gorako herritarren % 18k adierazi du herritarrek parte hartzeko Foroetan parte hartzeko interesa duela.

## 7. Alonsotegiko 2004ko ekobarometroaren ondorio nagusiak eta adierazleak

### 7.1 2004KO EKOBAROMETROAREN ONDORIO NAGUSIAK

